

**NAFARROAREN
EGUNA 2012**

**BAIGORRI
APIRILAREN 29A**

2012



1512

BAS HITZA

1512-2012

Mendeen mendetan Historia irabazleek dute idatzi. Duela 500 Urte, gure lurraldea konkistatu zutenek, haien kroniketan eta liburuetan gure Historia idazten hastea deliberatu zuten.... Baina, konkista hau ez da lurralde konkista bat baizik izan, izpirituak, pent-samoldeak eta izaiteak eraldatzeko prozesu bat martxan jarri du, euskal izaitea ezabatu nahian.

Garai ilunek iraun dute. Itxaropen etsituak ainitzak izan dira... Baina garai horietan ere herria borrokatu da eta aurrera egin du... Itzalean, isiltasuna urratu nahian, ate berriak idekitzea saiatu da.

Bainan egun, garai berri bat hasi da. Haize berri bat. Ideki den elgar-ritzeta berriak herriaren eragile guziak elgarretaritzen ditu, gero amankomun bat eraikitzeke nahiak batzen dituen.

Orain arte konkistak errege eta potentzia azkarren arteko gatazkak izan direlarik, gaur herriak du hitza. Aberriak bere herriaren jabe izaiteko eremaiten duen eguneroko guduka bat hasten da. Gaur egun, gure historia guk idatzi behar dugu. Herriaren berkonkista bat hasten da.

Bainan, gure konkista ez da auzoaren erasotzeko konkista bat, bai-zik eta gure herria berriz eskuratzeko, euskaldun berriz bilakatzeko eguneroko lan bat.

Asimilazioaren bidez euskal kultura desagertzeko arriskuan izan ondoren berplantatze eta rehabilitazio bat merexi du.

Euskal izaitea, gure aintzinean zabaltzen den une berri honetan normalizazio bat ezagutzeko bidean da, merexi duen ezagupen eta onartze bat jasotzeko punduan. Ezagupen hori izanen da gure garai-pena, bide demokratikoak zilegiztatzten duen garaipen bat.

Gaurko Euskal Herriak hasten duen konkistak, oztopoak, dudak eta etsipenak ezagutuko ditu, Historian zehar ezagutu dituen bezala. Baina euskal izaitea eta bere ezagupena lortzeko giltza eskuetan dugu: elkarlana, zatiketen baztertzea eta itxaropena... Bakoitzak bere heinean, auzoa eskutik hartuz, herri hau xutik ezar dezagun. Giltza hunek preso mantendu gaituzten kateak hausteko helburua du. Konponbide baten alde lehen pausu bat egina izan da, lehen atea idekitzeko giltza erabilia izan da... Ateak zabalik, elgarrekin, bide berri bat har dezagun, iraganaz eta gure hutsetaz ikasiz.

Apirilaren 29an

Igandea

NAFARROAREN

- Goizeko 8etan :** Askaria
Baigorriko ikastolak eskainirik
- Goizeko 11etan :** Kabalkada
Baigorri, Irurtzun, eta Amikuzeko ziganteak
Tuterako paloteadoak eta Baigorriko Arrola dantza taldeak
Joaldunak, Nafarroako gaiteroak, Uztaritzeko txaranga, Ezpela, txistulariak, trikitilariak, txalaparta...
- Eguerditan :** Elizako plazan : Ikusgarria
Bertsolariak, Tuterako eta Baigorriko Arrola dantza taldeak
Basaizearen hitza, Karmeleren irrintzina, dantza jauziak, eta Larrain dantza
- Atsaldeko 2etan :**
Pentzean : ikastolen bazkaria

Goiz osoan, artesau merkatua Elizako plazan

Atsaldean plazan :

- **3etatik - 5ak arte :**
Kirol animazioa Esait-ekin
- **5etatik - 6:30 arte :**
Dantza eta kantu ikusgarria :
Amaren alabak - Hortzadar
Iruñeko taldea - Beasaingo
dantza taldea
- **7etatik - 8ak arte :**
Bidrio eta otsoa
- **8:30tik - 9:30ak arte :**
Obaneuke
- **10etatik - 11ak arte :**
Laket

Atsaldean xokoan :

- **4:30tik - 5:30ak arte :**
Skatu
- **6etatik - 7ak arte :**
Egurra ta kitto
- **7:30tik - 8:30 arte :**
Txamps
- **9etatik - 10ak arte :**
Trikidantz
- **10:30tik - 12ak arte :**
Kiki Bordatxo
- **12tik goiti :**
Karaoke

